ORRILLA
21
Astartea
Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
...o'kua... ... 6,00 Irko. Iru ...
Bilbao'atazkua 7,50 „ „
Azkeni-itunmena 62,00 „ urtez
Atzarrijetakuak 100,00 „ „
Beldayen itunduba

XXIII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.989 zenbakija

Egunekua

Jai-ostian

Jai-ostian egun bateko izpaŕak baño geyago ixaten dira. Izpaŕotako batzuk, astelen goxian ageŕtuten dan asteroko oŕijak argiŧaldu oi-dauz. Euzkotaŕoi atsegiñen ixaten yakuzan izpaŕik geyenak, baña, astelenetako oŕi oŕek eztauskuz ekaŕten. Ezin, ba, oŕi ori euzkotaŕa baño lenago, beste edozer gauza da-ta.

Itzaldi bat

Larunbata gabian, Bilbao'ko Emakume Abeŕtzale-Batza'ko aretuan, itzaldi edeŕ bat ixan zan.

Izlarija ezaguna dogu: Agiŕe'taŕ Joseba Andoni. Joseba Andoni, au, ¿eztakixubela, nor dan?

Ezta aŕitzekua. Gixon au, ba, guretzat etxeko suburuba baxen ezaguna danaŕen, zubentzat, izpaŕingijetatik baño ezagutzen eztozubenentzat, ezaungia ixatia, ezta bape aŕitzekua.

Egun baten, "katoliku"-ixeneko izpaŕingijen bat eskuratu ta bertako izpaŕak irakuŕten zabiltzela, Joseba Andoni au, "masoi" biuŕtuta ikusi ixango zenduben. Beste egun baten, ostera, "Ceda" deritxon izki edo eurak ixatia gura dabelako Gil Robles'en alderdijan bazkidetuta.

Baña ez. Egija, irakuŕle, "katoliku" -ixenaz eskubetaratuta irakuŕten dozubezan izpaŕingi aldakoŕ oŕetan, eztago ez. Egija EUZKADI gure izpaŕingi zuzen onetan idoroko dozube. Izpaŕingi au irakuŕi ixan dabenak, Joseba Andoni aldun abeŕtzalia, Jel-ikuŕitzaz ixentetan dan jeltzaliak bakaŕik batuteko egiña dan lekutik aldendu barik ikusi ixango zenduben, beti.

Eta ori dala-ta, igazi dan larunbata'ko bere itzaldijan, gauza edeŕik asko edestu euskuzan. Itzaldi abeŕkoi aretan, bere lenengotiko abeŕtzaletasuna, sendotuta imiñi eban.

Itzaldi luze ta abeŕkoi aretatik geure euzko-ingoskijan geyen ageŕtu gura gendukezanak, baña, euzkera-arauz esan euskuzanak dira.

Euzkotaŕon izkuntzeari oratuta esan euskuna, auxe da:

"Uŕengo urtian, areto aretan oguziko daben itzaldija, euzkera utsezkua ixan biaŕ zala."

Gero, baŕiz, an entzuten eukazan Emakume Abeŕtzale-Batza'kuai ta abaŕ, iŧaune au zuzendu eutsien: ia uŕengo urtian euzkeraz egiteko ustia eukan itzaldija ondo uleŕtuteko bestian geŕteuta aurkiŧuko ziranentz.

Eletarijaren iŧaune onen erantzuna, irakuŕle, entzulengandiko oso-osoko "¡bai jauna!" ixan zan. Erantzun edeŕa.

¿Oraingo "¡bai jauna!" ori, emendik urte bat gaŕenian, egi biuŕtuta ikasteko zorija ixango ete-dogu? Azkenengo iŧaune, au, geuria da. Beraz, datoŕen urteraŕte, iŧaune onen erantzuna eskatuteko eskubiderik eztogu. Goikua lagun dogula, itxarongo dogu, ba. Baña ain begiko ixan yakun "¡bai jauna!" erantzun ebenak, uŕengo urte-buruban "¡ez jauna!" espanetan dabela ba-yatoŕkuz, ¡a zelakuak entzun biaŕ ixango dauskubezan...!

Agiŕe'taŕ Joseba Andoni'k, euzkerearen arijari jaŕaŧubaz, txeko-eliari ukutu eutsan.

Checoeslovaquia'n, igazi dan XIX eunkijan, iru abeŕtzale bakaŕik aurkitzen ei -ziran, euren abeŕi-elia ezagututen eben ¡iru abeŕtzale bakaŕik...!

Egun baten, euren abeŕi-eliak ilobirantza eroyan aŕapaladeak itxaŕtuta, areto baten batzau ei-ziran, eta aŕapalada areri esija imindeko gain dan zeozer asmetan asi. Checotaŕen abeŕi-eliaren zoritxaŕa ezagutu-ondoren, iru abeŕtzle zintzo areŧako batek, olantxe ei-iñuan: "goi ori jausiŧa azpijan aŕtungo ba'gendoz, ¡aguŕ gure checo-elia!: ¡geugaz batera ilgo litzake..."

Baña, ez. Iru abeŕtzale zintzo arein ganera etzan areto-zeruŕik jausi, Goiko Jauna'ren eskeŕa ta laguntzea baño.

Iru abeŕtzale areik, euren abeŕi-eliaren zoritxaŕa ezagututa, checotaŕak ilobira-bidian imiñi eben abeŕi--elia, irakasten asi ei-ziran, ba.

Eta gauŕ, eletarijak iñuanez, eskeŕak arei iru benetako abeŕtzale zintzuei, checotaŕen aŕtian euren abeŕi-elia ezagutzen eztaben gitxi-gitxi ixango ei-dira.

¿Eta euzkotaŕen aŕtian? Euzkotaŕon aŕtian geure abeŕi-elia eztakigun askotxu gara, tamalez.

Beste aldetik, baña, abeŕi-ele maŧe onen zorijonerako, euzkeraz dakijen iru abeŕtzale baño geyago zenbaŧu leikez euzkotaŕon aŕtian.

Checoeslovakiataŕak euren abeŕi-elia, abeŕtzaletasunaz gaizkatu dabe.

Guk, be, irakuŕle, gexuaren osakaya ezagututen dogunezkero, geure abeŕi-elia osatu barik eztogu lagako. Olakorik jazoko ba'litz, jazo, gure abeŕtzaletasunetzaz, ¿zer esango leukie...?

Euskalduna'n

Igazi dan igandian, "Euskalduna" deritxon pelota-leku onetan, iru jokaldi! jokatu ziran. Lenengo bijak, palazkuak; irugaŕena, otzaraz edo txisterazkua.

Lenengua adizkide-arauzkua ixan zan. Montoya ta Ayo, Lopez eta Yartza'ren auŕkakua. Jokaldi onetan gauza baŕi askorik ezkenduban ikusi.

Jokolarijak be, gastetxubak ziran. Bakotxak al ebantxuba egin-ondoren, goŕijak irabazi eben; 40-26 jokua amaŧu zan.

Bigaŕen jokaldija, Abando'ko Arakistain eta Arnaitz'en auŕka, Elofio'ko Kamara ta Kapelategi'k jokatu ebena ixan zan.

Abandotaŕak gaŕiko goŕijakaz ageŕtu ziran; markiñaŕak, ostera, oŕlegijakaz. Oŕlegijak asikeratik 4 eskuraldi jaŕaiko irabazi ebezan. Eta bein be atzeratu barik, 40'raŕte, auŕetik-auŕetik eldu ziran. Abandotaŕak, edeŕto jokatuta, 35'era eldu ziran. Pelotari gaste oneik, atsegin ixan yakuzan.

Azkenengua, txisterazkua ixan zan. Jokaldi onetako pelotarijak, markiñaŕak eta deustotaŕak doguz: Aŕate ta Gandia, ta Ortuondo ta Baskaran.

Lenengo bijak, gaŕiko goŕidunak dira; bestiak, oŕlegidunak.

Jokaldi au ikusten Deusto'rik geyena Euskalduna'ratu zan, eta euren eŕiŧaŕai txaluak joten aspeŕŧu be ezin ziran egin. Deustotaŕak, tamalez, jokaldi onetan, pasiño edo eurenkoŕtxu laŕegi erakutsi eben. Eŕiŧaŕai txaluak jotia bidezkua da. Bidezkua eztana, beste au da: laŕegikerijan nabaŕmendutia. Eta aŕaturiko jokaldijan, deustotaŕak egin ebena, orixe ixan zan: laŕegijan nabaŕmendu.

Jokaldi onetan geyen galendu ziran pelotarijak, onixek dira: markiñaŧaŕ auŕelarija, ta deustotaŕen atzelarija. ¡Txistera-pelotari bi onein pelota-otzaren erabiliaren edeŕa! Beste bijak be, baña, ez uste ixan, gero, pelotari trebiak eztiranik. Areik be edeŕto jokatu eben.

Markiñaŕak auŕetik asi ziran. Lau bidaŕ bardindu ziran. Lenengo bardiñaldija, 19-ñakua ixan zan.

Gero, baŕiz, 20-ña, 23-na, 28-ña ta 29 ña.

Emendik auŕera markiñaŕak eŕez irabazi eben, oŕlegijak 40'ra eldu ziranian, goŕijak 32 eskuraldi bakaŕik ebezen-eta.

Beraz, irakuŕle, txapelketa oneŧako txapeldunak, onixek doguz: palazkuen aŕtian, Eloŕio'ko Kamara ta Apalategi.

Otzarazkuen aŕtian, baŕiz, Markina'ko Aŕarte ta Gandiaga.

Jokaldi oneik zirala-ta, Euskalduna pelotaleku zabala ta aundija, osuan beteta aurkitzen zan. ¡Ba-yagok, bai, pelota-zaletasuna be!

URIBIŦAŔTE'TAŔ IBON.

Zortzitik - Zortzirat

AROA.—Aurten ez dugu naski udarik ikusi behar! Bi egun edeŕak egin orduko, hirugaŕenean menditik edo ez dakigu mundik haize hotz bat helou zauku hezuŕetan barna sartzen dena. Su ondoan egon behar kasik! Jainkoa uŕikal dakigula, Maitz huntan Andredena Mariari egiten ditugun otoitzen gatik...

PILOTA.—Hemen gaindi ere baditugu han-hemenka pilotako plaza batzu ezkeŕeko paretarekin: bat, Miaŕitzen. Han arizan dire Salegui eta Aŕayet I alde batetik, St. Martin eta Ibarburu bertzetik. Guziek uste zuten Salegui oebru hoŕek oro janen zituala. Ez du begirik ideki. Aler aldian zen eta chichtuka arizan zaio mundu bat. Holako pilotariak ez luke holakorik egin behar!

OSTIKOLARIAK.— Orai badakigu: aurten ere Eskualdunek irabazi dute chapeltza, ezen igandean gure Miaŕiztaŕek garhaitu dituzte Perpignan derizan hiriko katalandar famatuak. Nihork etzuen holakorik uste... Eskualdunek salbu. Gora Pagola, Lascaray, Eŕecart, Ithuŕa, Hirigoyen eta bertzeak! Geroniri etzauku batere itsusi gure heŕitaŕak nausitzea, joko hori ez maite izanik ere pilota bezala...

OHOIN LAN.—Miaŕitzen duela zenbeit egun ohointza andana bat eginik bazen. Ohionak preso altchatu dituzte: bi Paristaŕ dire: neska-mutil tzar batzu. Ikaran gindudela ohoinak ez ahal zirenean Eskualdunak, aitortu behar othe dugu? Bainan othe da ohoinik Eskualdunetan? Ez. Gure heŕietan, egiazko Eskualduretan ez da gizon zuzenik baizik. Makurtzen dire bakaŕik heŕitik uŕuntzen direnak. Lagun tzaŕek hartzen dituzte eta zer-nahi eginarazten diote. Bereziki, zoin uŕikari ditugun uŕungo hirietarat neskato bezala doazin neskatchk.

JAUN APEZPIKUA.—Ez dugu Baionan ilabete huntan gure Jaun apezpiku beŕia: heŕiz-heŕi dabila hauŕen konfirmatzen. Lehenik kaskoinetan ibiliko da, gero Chuberoko aldean. Ez da dudarik ongi etoŕi ona eginen diotela Chuberoko anaiek.

GAŔOKO IKASTEGIA.—Hetsia zagon zenbeit dembora huntan laborantzako ikastegi hori. Atseginnekin ikasiko dute orok beŕitz idekitzerat doala. Ez da toki egokiagorik laborari on... eta Eskualdun kartsu batzuen egiteko, han ibiliko diren irakasleekin. Aphez bat izanen da buru...

PILOTARIEN BATASUNA.—Bainan egin du bilkura bat Pilotarien Batasunak aurtengo gora-beherez mintzatzeko eta udari buruz behar diren chedeak hartzeko. Bilkuran ziren pilota maite duten guziak, salbu buruzagia: Ybarnegaray jaun deputatua oraino Afrikan da, eri. Hobeki omen doa haatik deputatu Eskualduna eta uste izateko da helduden ilabeteko hemen gaindi ikusiko dugula.

AŔAINTZALEEN BEŔI.—Azken egun hauk ez dituzte baitezpada on-onak izan gure aŕaintzaleek. Halere ez dire sekulan eskuak hutsik itzuli. Atuna bera agertu da: agian joan den urtean bezala emanen du. Itsasturiek eginen diote begitarte: guk ere ba!

HAUR PRODIGOA.

INGI BILDEGIA
Papelería de Oria.
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
Teléfono, 154. TOLOSA

Oker - zuzentza

Larunbatan agertu zan EGUNEKUA'n, geure idazlekide dan Uribiŧaŕte'taŕ Ibon jaunaren idazlan bat ageŕtu zan. Euzkeldun-batzokija gaitzat aŕtuz iñuazanak bere eritxijak baño eztira. Izpaŕingi onek ezin daikez beretzat jaso. Euzkel-oŕi onen buru egiŧen danak irakuŕi-barik ageŕtu ziran, ¿bai? eta oŕegaŧik okeŕ au zuzendu gura dogu. Bilbao'ko Euzko-Gastedijatzaz, batez-be, idazlan aretan esan ziranak eztaitekez esan. Euzko-Gastedi oŕek ixena ez-eze ekintzat, be, euzkotaŕai yagokezanak daukoz. Bertan asi ziran antziña-antziña euzkel-abestijak argitalduten; *Euzko-deya* ixan ba-zan, *Euzkeltzale-Bazkuna*, *Euzkerea*, euzko-irakastola berezijak; euzko-itzaldijak, abeŕtzaletasunaren zabalgunderako argitaldu diran oŕijak, euzko-teatrua, ipuñak, fol-klore-lanak, Euzkeltzale-Bazkunaren elestija. ¿Nok zenbatu daikez Euzko-Gastedi oŕen lanak, batez-be euzkerearen aldez? EUZKADI izpaŕingijak goraldu biaŕ dauz goraldu Bilbao'ko Euzko-Gastedijaren euzkeraganako lanak. Oso galduta eguan izkuntzeak buruba jasoten ba-dau oraingo aldijetan, Euzko-Gastedijari eskeŕak egin biaŕ-ixango yakoz. Antxe euzkerea ikasi dabe Bizkai'ko idazle geyenak. Geure Uribiŧaŕte'taŕ Ibon abeŕtzale zintzo ta euzkeltzale punterenguak esan gura ebana iluntxu egualako-edo, okeŕ askok uleŕtu ixango eban. Edo berari iluntxu urten yakon eretxija. Idatzi ebazan leŕoetan idatzi ebana, ezta berak daukon eretxija. Egunero idatzi biaŕ-ixaten danetan olako okeŕtxu batzu eŕezkiro jaŕtzen dira. Bilbao'ko Euzko-Gastedija'k eta beste gastedi gustijak al dabena egin daroe euzkerearen aldez. ¡Bestela elitxake ixango gauŕ daguan urduritasuna!

Leŕo onein bitaŕtez abeŕtzaliai atzaldu gura dautzubeguz Euzko-Gastedijaren meritu itxelak. ¡Txapela kendu biaŕ litxake Bilbao'ko Gastedi zintzuaren auŕian! Toki gustijetan egin ba-zan oŕ egin dan beste zorijoneko ixango gintzakez.

SEGURA

EUSKEL-IZENA.—Legorburu'taŕ Domeka'ren emazte Lanz'taŕ Sabiñe'k izan duen semeari "Iñaki" euskel-izen edeŕa ipini diote. ¡Ori da zintzo jokatzea, zorionak!

ETXERATU. — Bilbao'n txango-aldi edeŕa egin da etxeratu zaizkigu Aranburu'taŕ Pilare ta Eŕite andereñu abeŕtzaleak. ¡Ongi etoŕi!

BIDESKUNDEA.—Gure Miren Alaba edo Mariaren alabak il onen 26'an Gipuzkoa'ko zaindari dan Arantzazu'ko Ama 'rena bidezkunde edo peregrinazioan juteko asmoak dituzte.

PELOTARIAK.—Gure Batzoki'ko pelotariak igande onetan Beasain'go Batzokiko pelotaleku edeŕean Ordiziataŕakin jokatzeko dira! Jokaldi edo partidu bikaña izango dala uste degu!

DONOSTI'KO JAYAK.—Pozik jakin ditugu Donosti'ko Euzko-Gastedija'ren zabalkundeko jayaldi aundien beŕiak! Bazan garaya egia bere lekuan ipintzeko!

ZORIONAK. — Nekez bederik etoŕi zaigu Aŕieta'taŕ Koldobika abeŕtzale ezaguna, Eŕi-idazkaritza edo secretariotzako Madrid'en izan dituzten azterketa edo esamiñetan ondo atera-ta. ¡Zorionak lagun!

AGUŔTU.—Igandean emen aguŕtu zuten Iriarte'taŕ Koldobika Tolosakua.

BAZKARIA.—"Alkaŕtasuna" Sindikatokoak igande onetan Jaupa Meza Nagusia entzun eta "Etxetxo" ostatuan "Alkaŕtasuna,,'ren konturako bazkari edeŕ batekin euren zaindari Ixidor Deuna ospatzeko asmoak dituzte.

OTAŔA.

KIROLAK

OSTIKOKETAK

ATHLETIC, 1; BETIS, 2

Liga'ko ostikaldijetan txatxaŕ ageŕtu ba-ziran euzko-ostikolarijak, oraingo aldi onetan, be, antzeko dabiltz. ¿Bilbao'kuai noiz galdu-ixan ete eben San Mames'an? Ori jazoten zan bakotxean, negaŕ-anpulubak aurpegiratzen yakezan.

Betis'ko ostikolari-taldiak auŕelari onak daukoz eta ganera euren atia zaintzen ikasijak dira. Buŕukolarijak barik aldeztaliak dira. Lenengo ostikaldijan Bilbao 'taŕik nauzi ziran. Andalucía'taŕok laŕi ebiltzan. Athletic'kuak buŕukolari obiak dirala erakutsi eben. ¿Zelan, beraz, nausi ixan ziran Betis'taŕak? Eztakigu. Athletic'ko batzu nasai ebiltzan, laŕiŧasun gitxigaz.

Larogeta amaŕ miñiŧu luze areitan iru ostikaldi baño etziran ateratu. Andalucia 'taŕentzat ixan zan lenengo tantua. Saro 'ren ardurari egon yakon tantu ori. Goroztiza'ren ostikadeak ondo jaŕi eutson Roberto'ri baloya eta onen burukadeak ateratu eban. Tantu bategaz amaŧu zan lenengo jokaldija.

Bigaŕen aldijan Lekue'k beste tantu bat emon eutsen Andalucia'taŕai. Bilbao'ko ostikolarijak nausi ziran, geyago jokatu eben, baña galdu-biaŕa edo eurekin dabilalako lotsa-goŕijan geratu ziran.

Emeko ostikolarijak onexek ziran:

Blasco; Zabala, Ozexa; Zilauŕen, Mugertza, Roberto; Kareaga, Iraragoŕi, Mandalunitz, Agiŕezabala, Goroztiza.

Betis'kuak:

Urkiaga; Areso, Aedo; Peral, Gomez, Laŕinoa; Saro, Adolfo, Unamuno, Lekue Caballero, Ostale ixan zan epaikari, baña etxian geratu ba-zan obeto, ezer eztakijenak etxebaŕuban geratu biaŕ litzakezalako.

¿Igandian zer egingo dabe Bilbao'ko oneik? Sevilla'n bertan irabazi al-ixango dabe? Ezpediz ikeratu. Athletic'ko mutilak asko egin daikie, baña oŕetarako zintzoro jokatu bediz, nagikerijak alde batera itzijaz.

Metropolitano'n

ATHLETIC DE MADRID, 4; RACING, 3

Notintza andija zalarik jokatu ziran igandian Madrid'eko Athletic eta Santander'ko Racing. España'ko Txaloaren bila dabiltzan ostikolarijak laŕi dagoz nor nausi ixango dan. Racing'kuak iñoiz jokatu eztiran legetxe jokatu ziran eta Madrid 'taŕoi ikerea gorputzean saŕtu-eragiŧsen.

Lenengo jokaldijan Arotxa eta Ei... iru tantu loŕtu ebezan eta Santa... Fuentes'ek bat. Laŕinaga eta Fu... eskeŕak bigaŕen aldijan baŕdindu... Ostikaldi gorengua ordubantxe za... Elizegi'ren ostikada edeŕ bat la... emon eutsen Madrid'taŕai. Rach... ondo jokatu ziran.

Barcelona'n

BADALONA, 4; OSASUNA, ...

Badalona'ko ostikolarijak eta O... 'kuak ibili ebezan astrapaladak ... amaŧu ziran napaŕtaŕentzat. Osasu... ostikolari obiak dira eta zelayn be... akutsi eben euren azkaŕtasuna. T... auŕetik eroiezan Iruña'kuak. Tam... ri-txaŕa lagun etoŕi yaken. Iru ta... ñaz, tinko geratu ziran.

Badalona'kuak gauza andirik er... tikolari loi ta traketsak. ¿Zelan lo... zan tantu oŕeik? Iñok eztaki. E... bat Osasuna'kuak eurek eŋki eben... ebiltzala-ta, erdi-lo geratu ziraŋ...

Molinon'en

SPORTING, 1; BARCELONA, ...

Etxian bertan, be, lepo-bete em... tse Gijon'go ostikolari-taldiari. B... daŕak asko be geyago ziran. O... eŕiko gustijak. Talde bakotxak ... na loŕtu eban lenengo aldijan. B... gaŕen aldijan Escola'k beria e... Vallana'epaikari ixan zan eta e... ez betiagana, etzan jausi. Gi... eztaikie ezer egin orain dauken ... taldiagaz. Beratzak dira ta alka... eziñik ibili dabiltz.

Balaidos'en

CELTA, 4; SABADELL, ...

Zenbaki oŕeik igandekuak zir... dakuak oiz! Vigo'ko zelayan ... ziran katalandaŕak eta jokaldi ... eben egin. Buŕukaldi punterengu... zan, Celta'ko moŕoskuak, be, ... ebiltzan-eta.

Sabadell'ekuak azkaŕak dirala ... gu. Vigo'n bertan ikeraldi txikeŕ... tse emon Celta'kuai. Igandian ik... gu, baña Katalandaŕak nausi-ixa... Irebastia meresi-ixan eben.

Sevilla'n

SEVILLA, 1; MADRID, ...

Urduri egozan Sevilla'ŕak jo... ikusi-miñez. Gaŕantzi aundiko o... zan Madrid'taŕak, ba, entzute gu... ke. Zelaya bete-bete eguan. Ga... rik etzan ikusi, oŕaŧiño. Madrid'... edo-egozan. Sevilla'kuak, be, k... kolo.

Campanal'ek saŕtu-eragin e... nengo ta azkenengo golari. Oyu ... -otsak entzun-biaŕ ixan ebezan ... jak, baña etziran adoretu.

Grao'n

LEVANTE, 4; VALENCIA, ...

Iñok uste ezebana jazo yake... 'taŕai. "Gurin" oŕeik zapalduta ... ran; ez edonun, be, etxian ber... Lenengo jokaldijan gustijak e... ziran, baña tantu bana be e... Bigaŕen aldirako egozan tantua... bak. Entzutekuak entzun ebezan ... 'kua. Auŕkalarijak lau eukezan ... euren bategaz geratu ziran. Uri... tan egozan. ¿Zer jazo yaken Va... ai? Orain aŕte lenengo malan ... nak, nekatuta dagoz-edo.

Torrero'n

ZARAGOZA, 2; OVIEDO, ...

Zaragoza'ko zelayan notintza ... bildu ziran. Oviedo'ko ostikolari... tzute andikuak dira ixan be. Ba... jo eutsen zaragozataŕoi. Aragoi... nausi ageŕtu ziran. Ondo baño o... baziŧa dauke igandeko ostikaldija. ... tsegi jokatu ziran Asturias'kuak.

España'ko Txol-txapelketea:
San Mames: Athletic-Betis, 1—...
Madrid'en: Athletic Madrid-... 4—3.
Badalona'n: Badalona-Osasuna, ...
Vigo'n: Celta-Sabadell, 4—3.
Sevilla'n: Sevilla-Madrid, 1—0.
Grao'n: Levante-Valencia, 4—1.
Zaragoza'n: Zaragoza-Oviedo, ...

MAÑARIA

ARGIN-LAN EDEŔA.—Emek... gaste batzuk Zornotza'ko ildegira... bala'taŕ Iñaki'ren sendijaren ... aŕlanduzko apaingaŕi edeŕ bat egi... Lenago be gaste oŕeik, ildegietara... ko lan edeŕik asko egin ebezan ... antzian be egin ba asko.

"ANBOTO,'RI.—Geuk be ik... dun a mutila txiŕinguts-ganian ... ŕako aldatza atzerantza igoten ... 'ko aldatza beintzat olan igaro eb... mutil gixajo arek gure bildurez ... tza aldatza igaro ete eban diño... olan bazan ¡a lelo madarije! ¡Ma... MAÑARI.

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA
TXIKORO (ACHICORIA) BAK...

Eurija ogasun

Garate'tar J. M.

Igaziriko oŕil gustijan oŕ goyan ortze -aldetik, arantz-onantz dabiltzan odeyok, zeken-aldi gogoŕari eutsi dautsien-aŕen, baseŕijetako lugintzaliak mintzoro alegindu ixan dira, auŕez goldaturiko luŕak ausi ta landuten, aŕto-azijak ereŧeko.

Oŕilaren lenengo egunetan, Ipintze'tik begiratuta, ikusgaŕi eguan Egi-Goitik Azkartza egira bitaŕteko landa edeŕa; eduŕte aundi bat jausi ba'litzan, kare soñeko zurijakaz jantzi ebezan solo-landa mamintsu areik eta txaŕanagaz nastaurik luŕari giro-zain aŕto-azija ereŧeko.

Odeyen zeken-aldi luziak abelgoŕijen aska-auŕietan eupakada ipiñi eutsen gosia; baña bedaŕ-zelai ta mune legoŕetan ezin egikian igitairik jaŕi; pagatxak luŕetik aŕa-erdi goratu orduko jantzi ebezan txapel goŕijak-eta; barazki gustiak uŕeske okil egaŕiŧubaren antzera.

Jaunak, oŕaitik, estu-alditxubak bialtzen dakijan-aŕen, eztau iñor iŧoten eta oŕa loraŕaren irutik seira ortze-iŧuŕijak zabaldurik jausi zan euri gozo ta ugarija uŕegoŕizko tintoa zan.

Jausi dan giro edeŕaren ondoren, nabas -eŕestura jausi dan aŕto azijak ganera jantzi dautsan zats-oyal baltz-ganetik gorantza oŕi orlegi gardenak atarako dauz, udazkenian alorta ugarijakaz ta esku-zabalez ordaintzeko lurlangile onai.

Eŕotarijok, be, eŕeka urai alpeŕik igazten itxi-bagarik arduraz laneragin-aŕen, ozta-oztan euki-ixan da eŕotako azeliñeri bultz-egiñik, bil-bilka eragiteko aña ur indaŕ; orain Jaungoikua'ri eskaŕak, etoŕi yake bulzki-indaŕa aŕesi-ganea ziar aldaparataŕa guraña.

Sagasti edeŕik asko, be, ikuskaŕijak agiri ziran Beŕiatu-alde oŕetan; eŕomerijako gertu oi-diran neskatxa gastien antzera, lora pitxi zuriz txukunki jantzirik, lora -usain osasuntsuba, ipaŕ-axe bigunari emanaz, arnastu dagijen luŕ langile ta enparau gustijen birijak.

Sagaŕ lorategi oŕeŧatik euneko larogeik ale aŕtuta gatxik gabe eldurik umaotzen ba-dira upa azalok arduraz da garbiro atondu daikiez bada ugutze primiña barik ixango da guraña nun zuŕut-egin.